

Batua eta euskal fonologiaz

Jose Luis Alvarez Enparantza

U.P.V. - E.H.U - Irakasle Emeritua
txillardeg@euskalnet.net

Abstract

According to Txillardeg, without linguistic self-determination there will not be political self-determination. The author advocates language purism and questions the validity of the orthography and borrowed terms contained in Euskaltzaindia's (Basque Language Academy) Dictionary of Unified Basque.

Laburpena

Auto-Determinazio linguistikorik gabe Auto-Determinazio politikorik ez dagoela aldarrikatuta, hizkuntzaren garbikuntzaren alde agertzen da autorea eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan onartutako ortografia eta maileguen egokitzapenak auzian jartzen ditu.

Hitz gakoak: hizkuntza eta ideologia, ortografia, fonologia, araugintza.

"Hizkuntzak bizi du nazioa" Nyelvében él a nemzet (hungariar esaera)

1. Ezinbestezko abiapuntua hauxe izango dut: Euskal Herriak aspaldidanik (betidanik hobe) jasaten duen **zapalketaz** jabetu gabe, ezin daitekeela ikusmolde eta sasi-irtenbide alienatzaileak besterik eraiki.

Herri zanpakuntza iraunkor hori erabateko eragilea izan dela ukatzen dutenekin, jai dugu. Hauek euskaltzaletasunaren erremalez nagusitzekotan, itsutasunez zein itsukeriaz, gure hizkuntza errekarera eramango dutelako.

2. Hots, bitxia da; eta gure alienazioaren adierazle nabarmena ere bai.

Kalera irten, eta makina bat graffititan irakur daiteke gure kale eta enparantzetan; batzutan zirriborro zatar eta dotoreetan, beste askotan koloreztatutako piperpotoaren alboan: *Españari ez. Auto-Determinazioa*.

Hamaika manifestaziotan, bide beretik, *Euskararik gabe, Euskal Herririk ez* oihukatzen dugu.

Baina eginetara pasatzerakoan, **erdara** (edo ondoko **bi erdarak**, nahiago bada) hautatuak ditugula dirudi; Kataluñan, Eslovenian edo Estonian gertatu denaz bestaldera.

Auto-Determinazio **politikoari** bai esaten bide diogu (abertzaleok behintzat). Auto-Determinazio

linguistikoari, berriz, uzkur eta hotz datzekio gure baiezkoa.

Irlanda-ren porrot sozio-linguistikoa (eta *nazionala*, hein handi batez), uste dugu baino hurbilago dugu 2004 honetan.

Abertzaleon artean ere (ez-abertzaleetan ezer esan beharrik ez dago) Euskal Herri **Euskaldunaren** aldeko apostua egin gabe dago oraindik.

Kostata izan bada ere, ulertu egin bide du gure herriak Espainiak eta Frantziak gain-azarri dizkiguten egiturek, kalteak, malkoak eta sofrikario latzak eragin dizkigutela.

Hizkuntzaren alorrean gauza berbera sinesteko, aldiz, lanak ditugu nabarmenki. Soziologikoki eta psikologikoki **eroso** senditzen gara, bai, inperio bikoitzaren barruan. Eta bakazioetako pausalekuen aukeran ageri da hau.

Euskaraz ikasi ez duten milaka "abertzalek", polito moldatzen dira frantsesez edo ingelesez. Arana-Goirik euskaraz ikasi zuen. Jelkide askok eta askok, ez.

2.1. Eta honetan guztian urrun gaude arrunt **nazio-pizkunde** ezagutu duten herrietatik: Txekia, Hungaria, Eslovakia, Serbia, Grezia, Norvegia, Estonia, Turkia, Israel.

Maizago ezagutzen ditugu askapen **politikoa** gidatu duten buruzagiak, **nazio-hizkuntzaren pizkundera** bideratu zuten abertzaleak baino: Dobrovský, Molnár, Stur, Karadzić', Agricola, Korais, Aasen, Aavik, Atatürk, Ben Yehuda.

Einar Haugen sozio-linguista apartaren hitzek azaltzen dute pizkundera barrena abiatzen diren nazioen joera orokor hori zein izan den: **Nation and language have been inextricably intertwined... Every self-respecting nation has to have a language. Not just a medium of communication, a "vernacular" or a "dialect"; but a fully developed language. Anything less marks it as underdeveloped.** (*Haugen 1972:244*).

Areago: **The national ideal demands that there be a single linguistic code by means of which this communication can take place** (*Haugen 1972: 245*).

An independent and national language... is the foremost hallmark of a nation (*ibid: 289*).

Oso esaldi ederra da Jacques Berque-rena: **Une langue ne sert pas à communiquer. Elle sert à être** (*1977*).

Hori dela-ta, normalean, **batera** gertatu izan dira askapen politikoa eta askapen linguistikoa. Hizkuntz askapen "apolitikoak" inperialisten asmazio hutsa dira. Hizkuntzek ez dute etorkizunik **nazio-projektu baten barruan baizik**.

Estatu zapaltzailearekiko **herra politikoa, hizkuntza estatalekiko gorrotoari** erabat itsatsirik mamitu izan da non-nahi.

Inperialistek badakite hau. Eta Glotopolitikan ez dira folklokeriari gaitzen.

Europako herrietan (Irlandan salbu) horrela izan da.

Zeren zantzua dakarkio irakurleari honek guztiak?

4. **Ortografiarekiko** jarreran nabarmendu ohi da aurrenik esnaera hori.

Claude Hagège hizkuntzalaria ezin garbikiago mintzatu da puntu honetaz: **L'Orthographe est un indice d'affirmation nationale** (*Language Reform, I, 28*).

Gauza bera gertatzen da **Toponimian**. Gakoa hau baita: herriak behar du **izendatzeko eskubidea berreskuratzea** ("le droit à nommer", dio L.J.Calvetek). Bertako lekuak, hasteko! Hori ere ukatzen baitu okupatzaileak... edo, onenean, "letreros en bilingüe" jasaten.

Eta, hauekin batera, Lexikoa **garbitzeko joera**.

Arana-Goirik, alde honetatik, jaiotzaz bilbotarra eta erdalduna zelako bere proposamen askotan asmatu ez bazuen ere, **funtsean**, nazio-pizkunderetan *kanonikotzat* har daitekeen ibilbidetik abiatu zen.

Alegia, euskara **garbia** berreskuratu edo moldatu nahi izatetik.

Gure arteko batek, orain dela urte mordoska bat, "euskara mantxatua" **gogoko** zuela aldarrikatu zuenean (gaztelaniaz arroztua adierazi nahi zuen), bere errejionalismo politikoa salatu zuen zeharbidez.

"Harki"keria linguistiko horiek **marko politikoaren onarpenari baitatxekio** **Eta ez abertzaletasunari**.

Txanpon beraren bi aurpegiren aurrean gaude, ala ez?

5. Korais greziarrak **katharismós** deitu zion lan horri. **Garbikuntza**, alegia, zehazki. Inperialismoak arroztutako hizkuntza **garbitu** egin behar dela zion. Zenbait kasutan kanpotik hartutako *alfabetoa* bera ezetsi eta aldatu izan da (Turkian, adibidez).

5.1. Gogora ditzagun István Fodor hungariarraren hitz hauek: **The hungarian reform lasted from the last quarter of the XVII., till after the middle of the XIX. century... Language reforms of the epoch of national awakening were guided, in general, by such antipathy; and a purism developed for coining vernacular word forms to replace the foreign ones** (*Language Reform, III, 446*).

5.2. Joera bera Txekian, Dobrovský eta Jungemann-en zuzendaritzapean: **Les mots allemands sont remplacés par des mots tchèques anciens, des dérivés nouveaux, des emprunts russes et polonais**.

5.3. Estonia izan da, alde honetatik, baina beti bere gizartearen onarpenaz, **garbi-keta** urruneraino eramane duena. Tauli-ren hitzez mintzatuz, eta Aavik-en lanari buruz mintzo, hau dio: **The future of a nation depends to a large extent on the future of the language** (*Language Reform, III, 312*).

Estonia Alemaniaren jabego izan zen luzaz. Eta estoniar abertzaletasuna piztutzean, Alemaniak utzitako altxor arrotzetik urrundu, eta Suomira begira jarri zen "Eesti Batua" prestatzerakoan.

Jakina denez, suomi-era eta eesti-era hizkuntza ahaide hurbilak dira. Eta Aavik are morfo-sintaxiaren alorrean sartu zen, estoniera **errotik des-germaniartzuz eta eestitartzuz**, nolazpait esateko.

5.4. Norvegiaren kasoaren eraginez argi emale gerta dakiguke.

Norvegia Danimarkaren menpean luzaz egon ondoren, halako diglosia sortu zen. Kobenhagen-go hizkera, **A**"goiko" aldakia bihurtu zen (*Bokmal*;"bok" hori, liburu, osagaiak ezin argiago azaltzen duenez). Norvegiako dialektoak, aldiz, **B** "beheko" hizkera mailan geldituz (*Landsmal*).

XIX. mendean norvegiar abertzaletasuna sortzean, **norvegiara nazionalaren** beharra senditu zen. Ivar Aasen hizkuntzalariak hartu zuen bere gain eginkizuna: **to create a national language on the basis of the folk dialects** (Haugen 1972: 196).

Bidenabar, Mitxelenak gurean hartu zuen bidea han Aasenek hartuz, dialekto bat ez; baizik-eta denon arteko gonbaraketaz lortutako **Nynorsk** izenekoa prestatu zuen: **it should not be one of them, but a comparison of all of them** (Aasen: 196).

Eta projektua aurrera eramatekotan, Aasenek ez zuen **dena zaku berean sartu**; eta "melting-pot" neutro horretatik estatistika hutsez, edo nik dakita nola, elementuak hautatuz joan.

Hitez hitz emango ditugu Aasenen esanak: **In evaluating the dialects he also established a hierarchy of more or less "genuine", according to the degree to which they preserved the structural rules of the older language** (159).

Gogoan har berba pare hori: **hizkuntza zaharra**. Arkaismoaren kontrako gurzada piztu beharrean, Aasenek oinarritzat hartzen zuen elementuen **antzinatasuna**.

Koldo Mitxelenak ere bai gurean; 1968ko Txostenean (*14d*) ikus daitekeenez.

Areago, beti Haugen mintzo: **In the East there were some dialects that were not only less "genuine", being closer to Swedish and Danish, that he regarded as downright illegitimate, being the bastard offspring of Norwegian speech and Danish writing** (1972:199).

5.5. Jokabide berbera hartu zuten suomitarrek XIX. Mendean.

Oinarritzat XVI. mendeko Mikael Agricola-ren hizkuntza hautatu zuten. Apaiz hau zinez da Johanes Leizarraga-ren suomitar kidea; beronek itzuli baitzuen Testamentua suomierara.

Handik hiru mendetara suomitar abertzaletasuna hozitu zenean, eta orain, besteak beste, Lönnrot-en beraren hitzak erabiliz, **(il fallait introduire) des constructions de phrases originales, inventer des mots nouveaux pour remplacer les anciens d'origine étrangère** (ikus Sauvageot, in *Language Reform*, III, 185).

Suomin ere, Estonian bezala, elementu morfo-sintaktiko **arrotzak** erazi edo ordezkatu zituzten.

5.6. Lerro batzuk, amaitzeko, Turkiako kasuaz. Israel / Hebraierarekin batera, harrigarriena hizkuntzen gaurkotzeen multzoan.

Mustafa Kemal *Atatürk* ospetsuak 1923an sortu zuen turkiar Errepublika. Eta, aldaketekin batera (eta kurdoen, greziarren eta armeniarren sarraskia burutuz, ez dago zertan izkutatu beharrik), **hizkuntzaren garbiketa** hasi zuen (*dil devrimi* deritzona).

Aginte otomanoaren garaiko testuak **ulertezinak** zaizkio gaurko turkiar arruntari: **incompréhensibles pour le turc de moins de 60 ans**, dio Louis Bazin-ek (*Language Reform*, I, 155).

Alfabeto desberdina hasteko! Eta nahiz idazkera arabikoa Qoran-ekoa izan...

Irakur dezagun Bazin: **La révolution kémaliste, essentiellement nationaliste et populiste, ne pouvait se satisfaire, pour langue nationale écrite de la jeune République Turque, de l'héritage ottoman** (156).

Helburua garbi jarri zuen: **une langue turque dite "pure" ("öz türkçe"), se rapprochant le plus possible de la langue parlée dans les grandes villes** (honetan norvegiararentzat Aasenek hartutako bidetik urrunduz), **et rejetant le plus possible de termes ottomans arabo-persans** (Bazin: 161).

6. Zerbait aipatua dago jadanik.

Baina azter dezagun xehekiago **arkaismoen arazoa**.

Txekierari dagokionez, **bi mende lehenagoko hizkera hartu zuten oinarri-tzat**. (Ikus C.Hagège, in *Language Reform*, I, 15).

Suomierari dagokionez - esana dugu arestian - **hiru mende lehenagokoa**.

Hebraieraz, zer esango?

Koraisak, grezierari buruz oraingoan, oso oso zahar kutsuko **katharevusa** finkatu zuen. Gero askoz ere modernoagoa den **dimotiki batua** nagusitu bazaio ere.

Une voie courante de la réforme linguistique - dio Claude Hagègek - est celle qui remet en valeur d'anciens usages, ou en emprunte aux dialectes parents les plus conservateurs... Telle a été la voie suivie par beaucoup de réformateurs (I, 31).

6.1. Mitxelena hil ondoren Euskaltzaindiak hartu duen bidea **Hiztegi Batua** deritzon liburuan ikus daitekeenez (Euskaltzaindia 2000), **Europako joera nagusitik aldendu da**.

Eta ez hiztegian bakarrik, ikusiko dugunez.

Hitz-haserako herskariei dagokienez, esate baterako.

Egia da, H.Gavel-ek aspaldidanik esan zuenez, beroien **ozenketa** sistematikoa (ximplekiago esanda, jatorrizko *petaka*-ri *bodega* nagusitzea), **oro har** joera hila dela. **Kanpo** ez da **ganpo** bihurtu; eta **Tratu**, **dratu** ere ez.

Bidezkoa da kasu askotan, eta de facto euskalki guztietan aspaldidanik /p,t,k/ duten hitzak, *Hiztegi Batuan* horretara agertzea. **Ez dago zalantzarik**.

Baina euskal fonologia ongi erabili izan duten **bertsolari elebakarren lekukotzak** besterik erakusten du maiz.

Ez du balio beharbada berriro ere ene **Euskal Fonologia** liburuan (Txillardegi 1980: 92 eta hurrengoak) emandako adibide sailak eta arrazoiketak hemen errepikatzea.

Baina gauza guztiz nabarmena da Euskaltzaindiaren **Hiztegi Batuan**. Behin eta berriz, eta euskalki kontserbadoreen eta **Auspoa** sailaren lekukotza guztiaren gainetik, eta 1968an Mitxelenak prestatutako hiztegiaren kontra ere ez gutxitan, gaurko **gartzelaniaren hitzak hartu direla** batere erreparorik gabe, morrontza osoan.

Hor ditugu, beste askoren artean, **kanbiatu** (Euskaltzaindia 2000: 623) (**ganbiatu** erabiltzen delarik); **kardu** (ibid: 570), **gardu** baztertuz; **Pazko** (ibid: 513), eta ez **Bazko**; **Kalbario** (ibid: 622), eta ez bertsolariak erabiltzen duten **Galbario**; **konbertitu** (ibid: 631), eta ez Txirritak eta bestek erabiltzen duten **gomertitu**; **komeni** (ibid: 631), eta ez **gomeni**; **konparazio** (ibid: 632), **goma(ra)zio**-ren gainetik.

Gartzela gaur ere leku askotan herrikoia delarik, kartzela hobetsi da (ibid: 571). Mitxelenaren (1968); eta Arestiren gainetik (Gogoan har poetak 1971an prestatutako itzulpena: Nazzim Hikmet-en *Lau Gartzelak*). Eta abar.

Glaramentian, Diburtziyo, gorbeta, eta beste mila, alde beretik mintzo dira.

6.2. Joera **euskañol** berbera nagusitzen ari da beste hamaika xehetasunetan:

Zergatik **boluntario** (Euskaltzaindia 2000: 527), **bolondres**-en kontra?

Zergatik **konpromiso** (ibid: 633), **konpromezu** baztertuz?

6.3. Zergatik **ala** erabat markatzea, **edo**-ri lehentasuna eta orokortasuna ematen?

Euskalki askotan **ala/edo** desberdintasuna guztiz bizirik dagoelarik, españolez **o** bakarra dagoelako ote?

Kalko hori hazkor agertzen dela? Noski! Gainbehera eta zapalduta dagoen edozein hizkuntzatan gertatzen da jatortasun bila **atzera begiratu beharra**.

Baina Euskaltzaindiak hau kontutan ez hartzea erabaki bide du.

Frantsesez **oui** eta **si** berezten dira; baina españolez ez: beti **sí** erabiltzen da, eta kitto.

Parisen Euskaltzaindiaren bidea onartuz gero, **berexkeria ttattar eta arkaiko** hori erauzi beharko luke Académie Française delakoak... **Oui** orokortu, eta egina.

7. Onartutako Ortografia nabarmenki euskal fonologiaren aurkako.

Berantegi da orain atzera egiteko. Atsegin izan zein atsekabe, hor dago.

30 bat urte honetan, euskaldun jende askok Batua *idazten* ikasi du. **Aurrera** egin dugu zalantzarik gabe.

Baina izkribuak *irakurtzen* hasterakoan, euskal ahoskera jatorrak (**euskal ahoskerak** aski, egia esan) guztiz **atzera** egin dugula esan behar da.

7.1. Baiespenak eta ezesprenak.

Behin eta berriz oharrarazitakoa errepikatuz **ba**- (lotuta), baina **ez** (bereiz) izkiriak ez du funtsik. Betidaniko idazkeraren kontra jokatu dugu, eta euskal ahoskeraren kaltetan.

Bai **ba**-, bai **ez**-, **proklitikoak** dira. Eta **lotuta** idatzi behar lirakeke. Axularrek, Azkuek, Mitxelenak berak, horrela egiten zuten: **badakit / eztakit**.

Eta **azentu-unitate bakarra** (ez biga; Holmer-ek orain dela 40 erakatsi zigunaren bidetik). Orain entzuten diren [*éz dákit*], [*éz gára*], eta abar, **gaitzetsi** egin behar dira.

Gogora dezagun Azkueren beraren iritzia: **El fonema sordo z busca los sordos de petaka, convirtiéndolo en ellos los sonoros de bodega. Ez + balitz = ezpalitz; ez + daki = eztaki; ez + gera = ezkerá. - Es ley común, aunque hay comarcas aisladas, muy pocas, en que falta alguna de esas permutaciones** (1919).

Harrigarria da R.M.Azkuek Oñatiko Biltzarrean 1918an emandako bi hitzaldi hauek ezagunago eta errespetatuago ez izatea.

7.2. **ez- proklitikoak** eragiten dituen aldaketa fonologikoak ere, hamaika aldiz eta hamaika lekutan azpimarraturik ere (nik neure aldetik bederen), ahaztuta daude itxuraz. Eta fonologikoki munstrokeriak diren kontsonante-elkarketak jai-ta-aste entzuten dira irratian eta telebistan. "ezluke" idazten dena **eluke** ahoskatzen da; "ez nian", **enian** (*enian uste erraten ziela / aitunen semek gezurrik zion kanta zaharrak*); "ez zituen" idazten dena, **etzituen**; "ez haut", **e(h)aut** (*ehait diote kanta zaharrek*). Noizko plazaurreko Aldarri ozena?

7.3. **Bait- proklitikoak** ondorio fonologiko bertsuak ditu. Noiz arte jasan beharko dugu [ekarri baidute], [etorri baida], eta antzekoak?

7.4. Bide beretik, noiz arte [gertatuz gero], aurreko /z/ ozenduz, eta abar? Berandu bide da "gertatu **ezkero**" idazteko. Baina horretara, nola ahoskatu **behar** den azaltzea falta da. (Ikus, adibidez, Aita Zamarriparen bi Gramatiketan datozen etsenpluak, sistematikoki **ezkero** eta **azkero** idatziak).

Noiz arte [bat batean], bi /b/ ozenez, **bpatean** ahoskatu beharrean? Noiz bizkaitarren **bapez**, **iñopez**, **inoizpe**, eta abar, kontutan hartuko?

8. Maileguen egokikuntza.

Euskal "belarri" entzutetsuaren errealitate negargarria izagututa (gaur egun interferentzi giroak erdaratikako kalkoak ezartzen baititu %99tan, eta %lean bakarrik euskalkadak nagusi-erazten), **erokeria hutsa** izan da, euskal fonologiaren aldetik, ontzat eman den jokamoldea.

Beste herri zapalduak ez dute bide hau hartu.

L'écriture - dinosku C.Hagègek - **contrairement à ce qu'on a souvent dit, peut avoir une influence sur la prononciation** (*Language Reform*, I, 28).

Irizkide agertu da Mitxelena honi buruz: **letrak duen miragarrizko indarra lagun.... ez du, ez zuen,etc. ebakitzea (ahoz esatea!!) dotoreagotzat hartu du zenbaitek** (Mitxelena 1968).

Hau dela bide, beste hizkuntza pizkundeetan, oso tentuz hartu izan da maileguen egokikuntza fonologikoa.

Sauvageot-ek aipatzen adibidea gogoratuz, 1945ko gerrakoan, suomitar soldaduek **ropakanta** ahoskatzen zuten **propaganda** hitza. Suomitar "belarriak" laguntzen zituen egokikuntza "automatiko" horretan (hain zuzen, oso maiz erabiltzen zuen gure errenteriar jakintsuak Sauvageot-en adibide hau).

Baina gero erregela sailak erabaki zituzten (ikus *Language Reform*, III, 185) Lönnrot-en garaian. 11 garrantzitsuenetatik 4 Fonologiazko egokikuntzari zegozkion.

Adibidez (**propaganda**-ri erastekoa): **rejet de tout mot commençant par plus d'une consonne: suédois bly, finnois lyjy** (= eusk. berun). (185).

Beste adibide asko aurki daitezke Lauri Hakulinenen (1967): **In the Germanic Languages from which Finnish has borrowed, began with skr-, str-, spr-, kr-, tr-, pr-, gr-, dr- br-, fr-, (and of course r-) all appear in Finnish with no more than r- as their initial consonant** (Hakulinen 1987: 7).

Nahiz gaurko hiztegietan begiraturaz, hau ematen duen: *muta + liquida* hasera debekatu horren maiztasuna... zero ez denik. Baina hau suomitarrek zehaztu beharko ligukete.

8.1. Berriro ere hertsikiago jokatu bide dute estoniarrek egokikuntza fonologiko honen alorrean beste inork baino: **The only essential matter is phonetic homogeneity. Phonetic heterogeneous foreign words might be tolerated only as technical, non-emotional terms, e.g. telefon, planeet** (Tauli, *Language Reform*, III, 313).

Guk **Milafranga** bihurtu dugu Lapurdi-ko fr. **Villefranque**. Ongi egina.

Baina bizkaierazko **atoan** kritikatzin dugu, edo trufaz hartzen; zirkinik egin gabe **adjektibo** bedeinkatzen dugularik...

9. Batua arrotz, zergatik?

Zerk egiten du arrotz eta faltsu Euskara Batua? Bernardo Atxagak aipatzen dituen ajeak, txorakeria hutsak dira? Hiztun arruntak uzkur uzten dituelarik, zerk nardatzen ditu? Zerk uxatzen du entzulea testu "batu" hori irakurle "ofizial" batek ahoskera "zainduan" burutzen ari denean?

Gauza askok, jakina. Eta entzulearen ezaguera-maila eskasa tartean ziur asko eta askotan. Aitor dezagun.

Nork erabaki du, halaz ere, "gogoratzen dut" esaten dela, eta ez **gogoratzen zait**? Bertsolariek **akordatzen zait** esaten dute.

Oso "goian" dauden batzuek, ordea, **berrikerien modan** erorita, gutxietsi egin dute **aspektuen izaria...** (René Lafonek, ageri denez, alferrik erakatsi zigun dena!).

Eta hizkirimirien kondaira ere... "modernizatu" egin da. Gaztelaniak ez baitu bide hori jarraitzen.

Hona hemen, adibidez, pasadizu hau Antonio Zabalak jator kondatua (*Txirrita*, *Auspoa* 18-19; 57): **Txirrita jeiki da zegoen tokitik, ta joan da ate ondora, bañan andaluza gauza ez altxatzeko... Nagusiak orduan, aserretuta, eldu dio beso ondotik, eta atera du postura txarrean.**

Gaur, ordea, honelako zerbait entzungo genuke: *Txirrita jaikitzen da zegoen tokitik, eta joaten da ate ondora; baina andaluza ez da altxatzeko kapaz... Eta nagusiak orduan hasarretuta heltzen dio besotik, eta ateratzen du postura txarrean.* Euskalgaiztoz, alegia.

9.1. Eta nik, hala ere, bereziki **erdal ahoskerak** nazkatzen gaituela esango nuke.

Bai silabaketaz (eta hiato eta diptongoen arrozketaren etengabea), bai azentuaz, bai sandhien ukaera sistematikoak, **euskañolera** ekarri gaituzte.

Hona hemen erdal fonologiaren barruan, pototzat hartu behar litzatekeen zortziko txiki hau:

Komeri bat pasa da	(7)
entero polita	(6)
Errenteriatikan	(7)
onuntz etorrita	(6)
geiegi estutzia	(7)
alfer alferri ta	(6)
ñoiz bezin kontentu	(7)
eztago Txirrita	(6)

"Alferrik da idazten baida", azaldu dugunez...

Edo-ta Iturzaeta azpeitiarraren beste hau (*Auspoa* 86-87; 118):

Oiek okasiyua	(7)
nolana.i sortu	(6) [na.i] bisilabikoa ez da bakana. g
guztiak sufritzeko	(7)
gogua nor-tu ?	(5)
Donostia aldera	(7)
bagiñan agertu	(6)
gutxi bat arren preso	(7)
ezkaituzte sartu ;	(6)
geranak obartu	(6)
degu gogor artu	(6)
berak du aitortu	(6) ("du" grafiko hori, tu nik uste)
degunian bertu	(6)
eztu bere bururik	(7)
asko edertu.	(5)

[**nor tu**], jakina; eta ez [nork du].

Ohartxo bat Zubererari buruz:

"nurk daki", [núr táki]. **La dentale sonne comme une sourde dans toute la Soule** (Larraxket URTEA: 41-43, eta 171). Eta Larraxketek eta Iturzaetak ez zuten elkar ezagutzen, nik uste....

Eta Lexok ere ez (*Auspoa* 79-80-81; 317):

sortu
agertu
bildurtu
nortu

Txalogarria, beraz, hamaika kritikaren erdian, Jose Manuel Etxebarria Aiesta hizkuntzalariak, transkribaketa fonetiko zehatzen bilketa-lanari nekagaitz eusteagatik.

10. Aipamenak

- Alvarez Enparantza, J. L. (1982). *Euskal Fonologia*. Ediciones Vascas.
- Azkue, R. M. (1919). *Fonética Vasca*. Euskaltzaindiak Oñatin egindako biltzarrean emandako hitzaldia. 456-482.
- Euskaltzaindia* (2000). *Hiztegi Batua*, *Euskera* 45, vol.2, 477-757. Bilbao.
- Hagège, Claude, (1983). *Language Reform I, III*
- Hakulinen, L. (1961). *The Structure and Development of the Finnish Language*. Doktorego tesia. Indiana University Press.

Haugen, E. (1972). The Ecology of Language. California: Stanford University Press.
Larraxket, (1928). *Action de l'Accent.* Paris.
Mitxelena, K. (1969) Euskaltzaindiak Arantzazun egindako biltzarrean aurkeztutako txostena. Edit. Beobide. Donostia.